

9.KOSTU EGITURA

Proiektuaren kostu-egitura hainbat gastu nagusitan banatzen da. Lehenik, ekoizpenarekin lotutako kostuak daude: materialak, osagai elektronikoak, fabrikazioa eta muntaketa. Kostu hauek dira garrantzitsuenetakoak, produktuaren kalitatea bermatzeko beharrezkoak direlako.

Bigarrenik, ikerketa eta garapenaren kostuak kontuan hartu behar dira, prototipoak sortzea eta produktuaren hobekuntza teknologikoa finantzatzeko.

Hirugarrenik, merkaturatze- eta publizitate-kostuak daude, sare sozialak, iragarkiak eta web-gunearen mantentzea barne.

Azkenik, aplikazio digitalen garapena, ziurtagiri ofizialak eta logistika-gastuak ere kostu garrantzitsuak dira. Kostu guzti hauek ondo planifikatuta, proiektuaren bideragarritasuna eta errentagarritasuna bermatuko dira.